

Espainiako Turismo Kalitaterako
Institutua (ICTE)



SARS-CoV-2 koronabirusaren kutsapena murrizteko neurriak



BAINUETXEAK

Ildoak eta gomendioak



ICTEk eratutako Teknikarien Batzordeak eginda, Bainuetxeen Elkarte Nazionalaren (ANBAL) eta sektoreko kateen eta enpresen lankidetzarekin, eta Laneko Prebentzio Zerbitzuaren Espainiako Elkartearekin (AESPLA), PRLInnovación elkartearekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin adostuta.

Turismoko Estatu Idazkaritzak, autonomia-erkidegoek eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak (FEMP) koordinatuta.

AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	4
1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.....	4
2. TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK.....	4
2.1 Bainuetxea	
2.2 COVID-19a	
2.3 Arriskua	
2.4 Arriskuaren kudeaketa	
2.5 COVID-19rako arrisku-populazioa	
3. ARRISKUA KUDEATZEKO BETEKIZUNAK.....	6
3.1 Betekizun orokorrak	
3.2 Segurtasun- eta osasun-batzordea / Kudeaketa-batzordea	
3.3 Baliabide materialak	
3.4 Bainuetxearentzako neurri orokorrak	
3.5 Langileentzako babes-neurriak	
3.6 Informazio-neurriak	
4. INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK.....	12
4.1 Harrera-zerbitzua	
4.2 Aldagelak eta osasun-instalazioak	
4.3 Zerbitzu medikoa	
4.4 Tratamendu-eremua	
4.5 Ostatua	
4.6 Gimnasioa	
5. GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-BETEKIZUNAK.....	16
5.1 Garbiketa- eta desinfekzio-plana	
5.2 Tratamendu-eremuaren garbiketarako betekizunak	
5.3 Ehunen garbiketa	
6. MANTENTZE-BETEKIZUNAK.....	18
6.1 Prebentziozko mantentzerako plana	
BIBLIOGRAFIA.....	19
ERANSKINAK.....	20

0. SARRERA

Turismoa da gure herrialdeko industria nagusia. Haatik, COVID-19ak eragindako oraingo testuinguruaren ondorioz, protokoloak ezarri behar dira instalazioak berriro irekitzean komunitateko kutsapenaren arriskua handitu ez dadin, baita sektore horretan lan egiten duten pertsonentzat beharrezkoak diren babes-neurriak ere. Hori dela-eta, Turismoko Estatu Idazkaritzak COVID-19ari kontra egiteko osasun-protokolo bakarra koordinatzea hitzartu du autonomia-erkidegoekin, konfinamendu-neurriak leundu ahala turismo-sektorea berriro irekitzeko modua prestatze aldera. Turismo-azpisektore edo -jarduera bakoitzaren betekizunak jasotzen dituen protokolo homogeneo hau egiteko, Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren (ICTE) laguntza jaso da. Hain zuzen, institutu horrek bainuetxeei haien antolakundeetan arriskuak identifikatzen eta aztertzen laguntzeko xedez garatu du tresna hau, bai eta zerbitzuan, instalazioetan eta langileen artean birusari aurre egiteko jardunbide egokiak ezartzen laguntzeko asmoz egin ere.

1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Dokumentu honetan, bainuetxeek ezarri beharreko betekizunak eta gomendioak biltzen dira, SARS-CoV-2 birusa kutsatzeko arriskuak txikiagotzeko. Indarreko legeria alboratu gabe, dokumentu honetan, bainuetzeko langileentzako jarraibideak eta gomendioak xedatzen ditu, zerbitzua emateko eta instalazio eta ekipamenduetarako.

Dokumentu hau bainuetxe-establezimenduei aplikatuko zaie, baita osasun-zentroak ez diren eta ur mineromedizinalik ez daukaten arren ura ongizate-xedeetarako erabiltzen dituzten bestelako turismo-establezimenduei ere.

Zerbitzuak gobernuak argitaratutako egutegiaren arabera edo etorkizunean egon litezkeen aldaketekin bat etorritik jarriko dira martxan.

2. TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK

2.1 Bainuetxea

Tratamenduak aplikatzeko onura publikokotzat jotako ur mineromedizinalak erabiltzen dituen osasun-establezimendua.

(1277/2003 EDa, urriaren 10ekoa, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduei buruzkoa).

2.2. COVID-19a

COVID-19a SARS-CoV-2 koronabirusak sortzen duen gaixotasuna da (birusa 2019ko abenduan hauteman zen lehen aldiz). Honako hauek dira gaixotasun horren sintoma ohikoenak: sukarra, eztula eta aire-faltaren sentazioa. Dena dela, sintoma hauek ere izan ditzake: nekea, minak, muki-jarioa, eztarriko mina, buruko mina, beherakoa eta gorakoak. Pertsona batzuek usaimena edo dastamena galtzen dituzte.

(Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa, 2020).

2.3. Arriskua

Pertsona bat SARS-CoV-2 koronabirusarekin kutsatzeko aukera.

2.4. Arriskuaren kudeaketa

Erakundea arriskuaren arabera zuzentzeko eta kontrolatzeko koordinatutako jarduerak.

(UNE-ISO 31000:2018)

2.5. COVID-19rako arrisku-populazioa

Ezaugarri hauek dituzten pertsonak osatzen dituzte COVID-19aren ondorioz gaixotasun larria izateko arrisku handieneko taldeak:

- 60 urte baino gehiagoko
- gaixotasun kardiobaskularrak eta hipertentsio arteriala
- diabetesa
- biriketako gaixotasun kronikoak
- minbizia
- immunodepresioa
- haurdunaldia

Era berean, erakunde itxietan bizi edo lan egiten duten pertsonak kalteberagotzat jotzen dira, batez ere egoitzetan bizi diren adinekoak. Kalteberatasun txikiena 18 urte baino gutxiagokoek dutela uste da, eboluzio kliniko onena dutelako.

(Osasun, Kontsumo eta Ongizate Ministerioa, 2020).

3. ARRISKUA KUDEATZEKO BETEKIZUNAK

3.1. Betekizun orokorrak

Establezimenduak arriskua kudeatzeko konpromiso irmoa hartu behar du, eta arrisku hori gutxitzeko neurrien ezarpen sistematikoa gidatu.

Establezimenduaren prozesu guztietan egon behar du arriskuaren kudeaketak, eta, beraz, prozesu guztiek elkarrekin koordinatuta egon behar dute.

Arriskuen ebaluazioan oinarrituta, establezimenduak kontingentzia-plan bat egingo du eta, bertan, COVID-19aren kutsapen-arriskuak murrizte aldera hartuko dituen neurri zehatzak xehatuko ditu. Jarduerara itzuli aurretik prebentzio-jarduera hori egiteko ahalegina egingo da. Legeak eskatzen duenez, prebentzioko ordezkariak edo langileen ordezkariak kontsultatu behar dira arriskuen ebaluazioa egokitzeko prozesuan eta horren ondoriozko segurtasun- eta osasun-protokoloak egitean, baina komenigarria litzateke kontingentzia-plan hori enpresaren eta segurtasun- eta osasun-batzordearen artean adostea (edo, bestela, kudeaketa-batzordearekin adostea).

3.2. Segurtasun- eta osasun-batzordea / Kudeaketa-batzordea

Segurtasun- eta osasun-batzorderik ez duten enpresetan, enpresak arriskua kudeatzeko batzorde bat osatu behar du, langileen legezko ordezkariak barne hartuko duena; edozein kasutan, batzorde horren kudeaketa eta eginkizunak Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearekin bat etorriko dira une oro.

LAPLaren arabera subjektuak dituen arriskuak identifikatu eta ebaluatuta, batzordeak bere gain hartuko du COVID-19aren ondoriozko higiene- eta osasun-arriskuak murrizteko estrategiak zehazteko eta erabakiak hartzeko eginkizuna.

Zehazki, batzordeak honako hau egin behar du:

- Jarraitu beharreko xedek ezarri.
- Erabaki onenak hartzea ahalbidetzeko informazioa biltzeko mekanismoak (agintariei, enplegatuei, espezialistei eta abarri egindako kontsultak) ezarri.
- Koordinatuko den modua ezarri (honako hauekin koordinatuko da: batzordekideekin, enplegatuekin, arlo bakoitzeko agintaritza eskudunekin, hornitzaileekin eta azpikontratekin).

- Koordinatuko den modua ezarri (honako hauekin koordinatuko da: batzordekideekin, langileen ordezkariekin, laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuarekin edo, halakorik egon ezean, enpresak hautatutako prebentzio-antolaketaren modalitatearen arabera eginkizun horiek dituen pertsonarekin, enplegatuekin, arlo bakoitzeko agintaritza eskudunekin, hornitzaileekin eta azpikontratekin).
- Arriskuen ebaluazioa egin eta ondorioak atera.
- Beharrezko babes-neurriak diseinatu eta kontingentzia-plan batean jaso.
- Kontingentzia-planaren ezarpena planifikatu.
- Kontingentzia-plana bainuetxearen tamainaren eta konplexutasunaren arabera ezarri, eta hura betetzen dela gainbegiratu, haren eraginkortasuna balioetsi eta, beharrezkoa balitz, hura aldatu, frogatutako eraginkortasunaren arabera.

Kontingentzia-plana zehazteko, kontuan hartu behar dira desgaitasunen bat dutenen premiak.

Kontingentzia-planak, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu:

- Erabakiak hartzera bideratutako prozesuak aldatu ahal izatea, horiek aldatzea beharrezkoa balitz ere.
- Arriskuaren kudeaketaren esparruko agintariak eta erantzukizunak esleitzea.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea, baita norbera babesteko ekipamenduen (NBE-en) erabilera zehaztea ere, laneko arriskuen ebaluazioaren ondoriozko premietan arreta jarriz eta arau honetan eta laneko arriskuen prebentziorako aplikatu daitezkeen araudian ezarritakoa bazter utzi gabe.
- Une bakoitzean eskuragarri dauden tratamenduen katalogoa zehaztea.
- Enplegatu edo bezeroren batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak agertzen baditu, jardute-protokolo bat zehaztu eta txertatzea, edozein kasutan laneko arriskuen prebentziorako jarraibideak eta osasungintzako agintaritzenak betez, hurrenez hurren, eta kutsatuta egon daitezkeen gainazalak garbitu eta desinfektatzeko protokoloen berrikuspina kontuan hartuz.
- Osasungintzako agintaritzek emandako gomendioak eta jarraibideak bai enplegatuek bai bezeroek betetzen dituzten gainbegiratzea COVID-19ari aurre egiteko neurri bereziei dagokienez, baita arriskuen ebaluazioaren ondoriozko kontingentzia-planean jasotako neurri osagarriak betetzen dituzten ere.

3.3. Baliabide materialak

Establezimenduak beharrezkoak diren ekintzak ezarri behar ditu, arriskuen ebaluazioaren emaitzaren eta diseinatutako kontingentzia-planaren arabera aurreikusitako beharrezko baliabideez hornitzeko, edozein kasutan osasungintzako agintaritzen gomendioak (esate baterako, maskarak, eskularruak eta babes-betaurrekoak) kontuan izanik.

Establezimenduak kontuan hartu behar ditu baliabide materialez hornitzeko egon litezkeen murrizketak, baita murrizketa horien ondorioz sor litezkeen zerbitzu-mugak ere, eta, hala badagokio, hasieran proposatutakoez bestelako aukera egingarriak baloratuko ditu, beti ere langileen legezko ordezkartzarekin adostuta.

Uneren batean baliabide materialak falta direla hautematen bada, segurtasun- eta osasun-batzordeak edo kudeaketa-batzordeak aztertu eta erregistratu egin beharko du bainuetxea eta horko langileak babesteko agintaritza eskudunen aurrean, eta ordezeko baliabide eta neurriak aztertu eta proposatu ahalko ditu.

3.4. Bainuetxearentzako neurri orokorrak

Bainuetxeak honako hau egin behar du:

- Zereginak eta lan-prozesuak planifikatu, osasungintzako agintaritzek ezarritako segurtasun-distantzia bermatzeko moduan; lanpostuen kokapena, pertsonen joan-etorriaren antolaketa eta bainuetxeko espazioen banaketa egokitu egin behar dira beharrezkoa bada. Egokitu ezin badira, kontaktu bidez kutsatzeko arriskua saihesteko ordezeko neurriak hartuko dira. Lanean txandak baldin badaude, ahal den guztietan, txanda-talde beretan enplegatu berberak elkartzeko moduan planifikatu behar dira. Era berean, langileek arropa aldatu behar badute, pertsonen arteko distantzia hori ziurtatzea ahalbidetuko duen tokia prestatu beharko da horretarako, edo langileen aldagelen gehieneko edukiera ezarri, aldagelarik egonez gero. Gainera, barneko bileretan segurtasun-distantzia gorde behar da.
- Lan-ingurunean COVID-19ari dagokionez kalteberak diren langileen presentzia ebaluatu, eta langile horientzako segurtasun-neurri bereziak zehaztu.
- Ordutegia kontrolatzeko metodoa ukipen bidezkoa bada (hatz-marka, digituak) eta gailua desinfektatzen dela ziurtatu ezin bada, zenbait enplegatuk gainazal berbera ez erabiltzeko metodoren bat ezarri. Gailua erabiltzen den aldiro desinfektatzea erabakitzen bada, disoluzio desinfektatzaile bat egotea ziurtatu beharko da.

- Enplegatuen babes egokia ziurtatu, eskuak urez eta xaboez garbitzea erraztuz eta, hori ezin bada egin, disoluzio desinfektatzaileak erabiliz.
- Higiene-jarraibideak zabaldu, lanpostuan (lanera sartu aurretik, lan egin bitartean eta lan egin ondoren) erabili beharreko higiene-arauei buruzko informazio oso, argi eta ulergarriarekin batera. Kartelak ere erabil daitezke.
- Eskuen higiene egokirako denbora eta baliabideak eman.
- Laneko arriskuen ebaluazioren ondoren, NBE egokiak eman. Zerbitzuren bat azpikontratatuta edukiz gero, enpresa nagusiak gainbegiratuko du langileek norbera babesteko beharrezko ekipamenduak dauzkatela.
- Lana egiten den instalazioak eta espazio partekatuak erabiltzeko arauak ezarri, segurtasun-distantzia gordetzeko (adibidez, igogailuetan, jantokietan, sarbide eta guztientzako eremuetan, aldageletan, tratamendu-eremuan).
- Gutxienez egunero eta, ahal denean, maiztasun handiagoaz, establezimenduko eremu guztiak aireztatu.

Gainera:

- Jarduera guztietan pertsonen arteko segurtasun-distantziak errespetatu behar dira. Horretarako, eta beharrezkoa denean, edukieren dagokien kontrola egin beharko da. Hori ezinezkoa baldin bada, beharrezkoak diren neurriak eta babes-ekipamenduak bermatu behar dira.
- Bainuetxeak, uniforme-motaren arabera, aplikatu beharreko garbiketa-mota eta -maiztasuna zehaztu behar ditu. Uniformea lanaldian soilik erabili behar denez, establezimendua langileen laneko arropa garbitzeaz arduradadila gomendatzen da, berezko lentzeriarekin batera. Horiek 60 °C-tik gorako tenperaturan garbitzea ziurtatu behar da. Garbitzaileen eta tratamenduetako langileen uniformeak langileen etxean garbitzen baldin bada, establezimenduak laneko arropa 60 °C-tik gorako tenperaturan garbitu behar dela jakinarazi behar die enplegatuei. Laneko arropa poltsa itxi batean garraiatu behar da. Uniformeak tenperatura horretan garbitu ezin badira, behar bezala desinfektatu beharko dira.
- Erabiltzen dituzten maskarak, eskularruak eta NBEak behar bezala erabiltzeko eta mantentzeko trebatu behar dira langileak.

3.5. Langileentzako babes-neurriak

3.5.1 Betekizun orokorrak

Langileek diseinatu den kontingentzia-plana ezagutu behar dute eta, zehazki, arriskuaren kudeaketaren esparruan dauzkaten erantzukizunen berri izan behar dute.

Zehazki, langileek honako hau egin behar dute:

- Informazio argi eta ulergarria izan, baita ezartzen diren neurri bereziei buruzko prestakuntza zehatz eta eguneratua ere.
- Ukipen fisikoaren bidezko agurra saihestea, eskua ematea barne, hala langileen artean nola bezeroekin. Ahal den guztietan segurtasun-distantzia errespetatu behar da.
- Lanpostu bakoitzeko arriskuen ebaluazioaren emaitza kontuan hartu, maskara erabiltzea derrigorrezkoa den ala ez eta garatu beharreko zereginaren arabera zein ezaugarri izan behar dituen (adibidez, higienikoa edo kirurgikoa izatea) baldintzatuko baitu ebaluazio horrek, ezaugarri horien arabera erabilera-denbora zehazteaz gainera.
- Norberaren higienarako edozein hondar (bereziki, erabili eta botatzeko zapiak) eta NBEak berehala bota eskuz eragiten ez zaien eta poltsa daukaten paperontzi edo edukiontzietara.
- Eskuak xehetasunez garbitu tratamendu bakoitzaren aurretik eta ondoren, doministiku egin, zintz egin edo ez tul egin ondoren, kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitu ondoren eta pertsonetikiko zuzeneko kontaktua dakarten tratamenduak aplikatu ondoren. Hala ere, instalazioaren ezaugarrien arabera egokitu behar da eskuak garbitzeko protokoloa, adibidez, bainuetxearen ezaugarri fisikoak direla-eta langileek eskuak aldizka garbitu ezin dituztenean. Horrelakoetan, disoluzio desinfektatzailearen erabilera ziurtatu beharko da.
- Lanaldi guztian zehar, norberak erabiltzeko objektuak (betaurrekoak, mugikorrak, etab.) maiz desinfektatu, egingarria bada urez eta xaboiez edo, bestela, disoluzio desinfektatzaile batez. Txanda aldatzean, berriz, lanpostuko elementuak (pantaila, teklatua, sagua, etab.) desinfektatu beharko dituzte. Ekipamendu elektronikoak desinfektatzeko berriarazko produktuak erabili behar dira, zapi batez edo paper-zapi desinfektatzaile berezietatik aplikatuz.

- Beste enplegatuen lan-ekipamendurik edo gailurik ez partekatu. Ekipamendu edo gailu jakin batzuk txandaka erabiltzen badira, bainuetxeak erabileren artean garbitu eta desinfektatzeko jarraibideak ezarri behar ditu kutsatzeko arriskua murrizte aldera.
- Egunero laneko arropa garbia jantzi.

3.5.2 Garbitzaileentzako betekizun zehatzak

Garbitzaileek arrisku-mailaren eta laneko arriskuen ebaluazioaren emaitzaren arabera norbera babesteko ekipamendua erabili behar dute. Gutxienez, maskara eta eskularruak erabili behar dituzte.

Garbiketa bakoitzaren ondoren, erabilitako materialak eta babes-ekipamenduak modu seguruan botako dira, egindako arriskuen ebaluazioaren emaitzari eta diseinatutako kontingentzia-planari dagokien moduan, eta ondoren eskuak garbituko dira.

Maskarak, eskularruak eta NBEak utzi eta ondoren kudeatzeko, estalkidun pertzak jarriko dira.

Hemen deskribatutako zerbitzuak azpikontratatuta badaude, bainuetxeak gainbegiratuko du langileek beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak dauzkatela eta ezarritako prozeduren arabera jarduten dutela.

3.5.3 Tratamendu-eremuko langileentzako betekizun zehatzak

Tratamendu-eremuko langileek prebentzio-neurri hauek bete behar dituzte:

- NBE-ei edo higiene-ekipamenduei dagokienez, tratamenduetako langileek pantaila (edo betaurrekoak) erabili behar dute hezetasun erlatiboak ahalbidetzen duenean, maskaraz indartuta. Lurrunaren kontrako sistema duten pantailen edo betaurrekoen erabilera ere kontuan hartuko da.
- Nolanahi ere, babes-elementuak une bakoitzean ematen ari den tratamendu-motaren arabera erabili behar dira. Kudeaketa-batzordeak ezarriko du.

3.6. Informazio-neurriak

Bezeroa bainuetxera heldu aurretik

Bainuetxeak bezero guztiei jakinarazi behar die komenigarria dela ahalik eta kontu handinez jardutea eta arriskua duten pertsonen NBEak erabiltzea.

Bainuetxean

Bezeroei zuzenean eragiten dieten eta aplikatu behar dituzten planeko neurriak (adibidez, maskararen erabilera, eskuen garbiketa, segurtasun-distantziak, etab.) jakinaraziko zaizkie. Informazio-neurriek honako hauek hartu behar dituzte barne:

- Higiene-neurriak azaltzeko kartelak.
- Segurtasun-distantziari buruzko argibideak (adibidez, bainuetxeko harrerako zoruan, tratamendu-gelarako sarreran eta abarretan markak jartzea).

Kartelek gutxienez atzerriko hizkuntza batean egon behar dute (bezeroen jatorrizko herrialdea edo herrialdeak kontuan hartuta, hala badagokio). Baliabide digitalen bidezko informazioaren erabilera sustatuko da (norberaren mugikorraren edo informazio-pantailen bidez).

Establezimenduak kontingentzia-planaren ondorioz hartzen diren neurriak betetzeko laguntza eskatu behar die enplegatuei, eta higiene-neurriei eta babes-materialaren erabilera egokiari buruzko beharrezko informazioa eman behar die langileei.

4. INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1. Harrera-zerbitzua

Bainuetxeko harreran, prebentzio-neurri hauek bete behar dira:

- Harreran jende-metaketak saihesteko eta taldeak heltzen direnean segurtasun-distantzia ziurtzeko sistema zehaztu behar du bainuetxeak.
- Bainuetxeko harrerako langileen arteko segurtasun-distantzia bermatu behar da; bestela, banatzeko elementu fisiko bat, erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoa dena eta langileen babesa ziurtatzen duena, bermatuko da edo maskararen erabilera ziurtatuko da.
- Bezeroen artean gutxieneko segurtasun-distantzia ziurtatu behar da eta distantzia adierazteko markak ipini behar dira, ikusteko moduan, pilaketak ekiditeko.
- Harrera-eremuan bezeroek eta langileek erabiltzeko disoluzio desinfektatzaile bat eduki behar da.
- Txartelaz edo bestelako baliabide elektronikoez ordaintzea sustatu behar da, ahal bada, *contactless* baliabideez.
- Kontaktua dagoen erabilera bakoitzaren ostean, STa desinfektatu behar da. Txartela bezeroak bakarrik manipulatu beharko luke.

- Mahaiaik aldizka garbitu eta desinfektatu behar dira, bezero gehiago edo gutxiago izan diren kontuan izanik.
- Ekipamendu informatikoa eta beste edozein erabilera-elementu (adibidez, telefonoa) lan-txandaren hasieran eta amaieran garbitu eta desinfektatu beharko dira, eta norberak erabiltzeko aurikular eta kaskoak izatea gomendatzen da.

Jaso beharreko tratamendu terapeutiko mota dela-eta aurretiaz mediku-kontsulta egin behar bada eta medikuak COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak aurkitzen baditu, ez da instalazioetan sartzeko baimenik emango. Gainerako jolas- edo ongizate-zerbitzuetan, bezeroen erantzukizunpeko adierazpena erregistratuko da; bertan, tratamenduak jasotzeko dauzkaten bateraezintasunak egiaztatuko dituzte.

Larrialdietako eta hurbileko ospitaleetako edo osasun-zentroetako telefono-zenbakiak eduki behar dira.

4.2. Aldagelak eta osasun-instalazioak

Puntu hauek bete behar dira:

- Aldagelen eta osasun-instalazioen edukiera kontrolatu behar da, segurtasun-distantzia ziurtatzeko.
- Bezeroek erabiltzeko disoluzio desinfektatzailea eduki behar da sarreran.
- Komunetan xaboi-banagailuak egon behar dute, baita lehortzeko papera edo esku-lehorgailua ere.
- Eskuetarako eskuoihalak saihestu behar dira, baita erabilera indibidualekoak ere.
- Kontsumigarriak (xaboia, lehortzeko papera, etab.) une oro birjartzen direla ziurtatu behar da.
- Guztiek erabiltzeko ile-lehorgailuak alboratu behar dira.
- Paperontziak eskuzkoa ez den eragingailu batez ireki behar dira eta barnean poltsa bikoitza eduki behar dute.

Maiatzaren 3ko SND/386/2020 Aginduaren arabera, guztiek erabiltzeko komunak egunean 6 aldiz garbitu eta desinfektatu behar dira gutxienez.

Gomendatzen da eskuz eragiten ez zaien txorrotak (pedal edo sentsoreen bidezkoak) edo, bestela, presiozkoak erabiltzea.

4.3. Zerbitzu medikoa

Itxarongelaren edukiera zehaztu eta kontrolatu behar da, kasu guztietan segurtasun-distantzia ziurtatzeko (adibidez, hitzordu-sistemaren bidez), edo bezeroak fisikoki banantzeko metodoak ezarri.

Mediku-kontsultarako gela aldizka garbitu eta desinfektatu behar da.

Bezeroei mediku-azterketa egitean, pazientearen gorputz-tenperatura egiaztatu behar da, ahal bada ukipenik gabeko termometroaz.

4.4. Tratamendu-eremua

4.4.1 Betekizun orokorrak

Bainuetxeak identifikatu behar du bere katalogoko zein teknika erabiliko dituen COVID-19aren testuinguruan osasungintzako agintaritzek ematen dituzten gomendioen eboluzio-agertoki bakoitzean, irizpide hauek kontuan hartuta:

- kutsapen-arrisku handiagoaren edo txikiagoaren berri ematen duten azterketa zientifikorik badagoen (adibidez, ez da bide atmiatrikoaren bidezko tratamendurik eman behar, adibidez, aerosolen edo lainoztagailuen bitartekorik, oraingo testuinguruan tratamendu horiei datxekien arriskuei buruzko informazioa eduki arte);
- materialak eta kabinak desinfektatzeko edo esterilizatzeko aukerarik badagoen;
- aplikazio kolektiboko ala indibidualeko teknikak diren (adibidez, igerilekuan edo banakako bainuontzian bainatzea, etab.);
- beste irizpide batzuk, esate baterako, COVID-19ak tratamendu jakin batzuetan duen inpaktuaren inguruan egiten diren azterketa zientifikoak.

Teknika bakoitza xehetasunez aztertu beharko da. Teknika kolektibo batzuk, azterketaren arabera, banaka aplikatu behar dira.

Buztinak edo peloideak aplikatzen badira, aplikazio bakarrekoak izango dira edo, bezero berberarentzat berrerabiltzen badira, erakundeak bezeroaren izena jarriko du peloidean, hura identifikatzeko. Paraloehiei dagokienez, ezingo dira erabili aplikatzean babes-hesi fisikorik gabe beste bezero batzuentzat erabili direnak.

4.4.2 Eremu lehorra

Eremu lehorreko tenperaturak 23 eta 26 °C bitartekoa izan behar du.

Eremu lehorreko ekipamendu guztiak (sofak, erlaxatzeko oheak, etab.) garbitzeko eta erraz desinfektatzeko modukoa izan behar du. Ekipamendu oro (aulkiak, etzaulkiak, etab.) erabiltzean, nahitaezkoa izango da eskuoihala edo bainu-txabusina baliatzea, bezeroen eta ekipamenduaren arteko kontaktu fisikoa saihesteko. Ekipamendu hori aldizka desinfektatuko da.

4.4.3 Eremu hezea

Eremu hezean, prebentzio-neurri hauek bete behar dira:

- Eskudelaren desinfekzioa areagotuko da.
- Ez da ez tapizik ez moketarik erabili behar.

Toki bat (adibidez, pertza, saskia, etab.) eduki behar da bezeroek erabilitako eskuoihalak uzteko; estalkia eta pedala duten ontziak erabiliko dira, eta barruan poltsa bat eduki beharko dute erabilitako eskuoihalak jartzeko.

- Tratamendu hidropinikoak lagundua izan behar du.
- Tratamenduen osteko ur-zerbitzu osagarria ur botilatuaren bidez emango da, ez guztiek erabiltzeko iturrien bidez (jario jarraituko iturriak izan ezean; horrelakoetan, botatzeko basoak erabiliko lirateke).

Igerilekuei dagokienez, bai kanpokoetako bai estalietako uretan COVID-19ak duen portaerari buruz eskatutako txosten zientifikoaren emaitzen arabera aplikatzeko jarraibide eta gomendioak zehaztuko dira.

4.5. Ostatua

Bainuetxea “Medidas para la reducción del contagio por el coronavirus SARS-CoV-2 en hoteles y apartamentos turísticos” (ICTE, 2020) eta “Medidas para la reducción del contagio por el coronavirus SARS-CoV-2 en servicios de restauración” (ICTE, 2020) dokumentuetan emandako neurriei lotu behar zaie.

4.6 Gimnasioa

Puntu hauek bete behar dira:

- Instalazioaren edukiera halako moduan zehaztu behar da non segurtasun-distantzia betetzen dela ziurtatzen den (baita makinaren artean ere), eta erabilitako eskuoihalak uzteko toki bat prestatu behar da. Pedal bidez irekitzen diren eta plastikozko poltsaz hornituta dauden estalkidun pertzak erabiltzea gomendatzen da.
- Eskola kolektiboetan edo taldekoetan 2 x 2-ko espazio bat bermatu behar da irakasleaz aparte. Kokapenak zoruan markatu beharko lirateke. Elkar ukitzea eskatzen duten ariketak saihestu behar dira. Aire zabalean egin daitezkeen jarduerak espazio irekietara eramango dira.
- Eskola kolektiboetako saioen artean jarduerarik gabeko denbora-tarte bat egotea ziurtatu behar da aretoak garbitu eta desinfektatzeko emandako saio bakoitzaren ostean eta, modu horretan, enplegatu eta bezeroen segurtasuna bermatzeko. Edozein kasutan, aretoak egunean zenbait aldiz aireztatuko dira.
- Guztiek erabiltzeko iturriak zigilatu behar dira, jario jarraitukoak ez badira edo modu automatikoan edo pedal bidez abiarazten ez badira.
- Kirol-ekipamendu guztietan eskuoihala erabiltzeko eskatu behar zaie erabiltzaileei.
- Bezeroek makina bakoitza erabili ostean, garbitu eta desinfektatu egingo da. Gauza bera aplikagarri izango da gimnasioko guztiek erabiltzeko elementuetarako (adibidez, pisuetarako, *fitness* pilotetarako eta halteretarako eta abarretarako). Horiek garbitu eta desinfektatzea ziurtatu ezin bada, kendu egin beharko dira.

Halako instalazioetan segurtasun-distantzia bermatu ezin bada, instalazioak aldi baterako itxi behar dira, eta bezeroei beste aukera batzuk eskaini (adibidez, kanpoan egiteko ariketen taula pertsonalizatuak).

5. GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-BETEKIZUNAK

5.1. Garbiketa- eta desinfekzio-plana

Bainuetxeak garbiketa- eta desinfekzio-plana egokitu behar du arriskuen ebaluazioaren emaitza aintzat hartuta. Plan horretan honako hauek jaso behar dira gutxienez:

- Garbiketen eta berrikuspenen maiztasunak areagotzea, batez ere gehien ukitzen diren eremuetan (gainazaletan, eskulekuetan, txorrotetan, biraderetan, igogailuetan, harrera-mahaian, ateetan, telefonoetan, urrutiko kontroletan, komuna deskargatzeko botoian, babes-langetan, klimatizazio-kontrollean, lehorgailuan, eskudeletan eta abarretan). Zehazki, enplegatuen lan-eremua (adibidez, harrera-mahaia, kutxa, etab.) desinfektatu behar da txanda bukatzean.

- Basoetan egiten diren baktería-analisen maiztasuna handitzea eta uraren ingurunean ukitzen diren objektuen eta gainazalen garbiketak eta desinfekzioa areagotzea.
- Bezeroak egon diren guztiak erabiltzeko eremuak egunero aireztatzea.
- Gainazalak produktu desinfektatzaileez garbitzea.
- Garbiketa-produktu desinfektatzaileak erabiltzea, modu seguruan. Erabiltzen diren desinfektatzaileen eraginkortasuna ziurtatu behar da, eta produktuen segurtasuneko datu-fitxetan ipinitakoa betez erabili. Edozein kasutan, osasungintzako agintaritzek baimenduta egon behar dute.
- Instalazioak segurtasun-baldintza egokiak betez garbitzea, laneko arriskuen ebaluazioren araberrako babes egokia bermatuz.
- Instalazioa desinfektatzeko egindako ekintza guztiak erregistratuko dira.

Kutsatuta egon daitezkeen instalazioak higiene-neurri egokiekin tratatu behar dira.

Guztiak erabiltzeko eremuetako (komunetako, harrerako, aldageletako eta abarretako) paperontziak biltzen direnean, zigilatu eta bilketa-gunera eraman behar dira.

Egindako garbiketen eguneroko erregistroa egin behar da.

Kontingentzia-planean, lanaren plangintzan eta antolakuntzan beharrezkoak diren garbiketa-neurrien inpaktua zehaztu behar da, eremu horrek testuinguru horretan duen garrantzia berezia dela eta.

5.2. Tratamendu-eremuaren garbiketarako betekizunak

Tratamendu-eremuan, garbiketa eta desinfekzioa maiz egin behar dira, honako hauei buruz ezarritako garbiketa- eta desinfekzio-planaren arabera:

- arnas terapiako ekipamenduak, txorrotak, dutxak eta maiz erabiltzen diren puntu terminalak;
- erabilera indibidualeko eta birzirkulaziorik gabeko bainuontzien hormak eta atzealdeak, erabili ondoren;
- basoen hormak eta atzealdeak (lanegun bakoitzaren amaieran);
- tratamendu-kabinak.

Bainuetxeak bezeroek erabiltzeko ekipamenduak desinfektatzeko eta esterilizatzeko plana eduki eta ezarri behar du. Ekipamenduak aplikatzeko, ezinbestekoa da horien desinfekzioa eta esterilizazioa ziurtatu ahal izatea. Plan horrek osasungintzako agintaritzaren gomendioekin bat etorri behar du,

COVID-19aren testuinguruan. Plan horretan, desinfektatzaileen erabilera eta lotutako arriskuak zehaztu eta kontuan hartu behar dira (adibidez, produktu jakin batzuk aplikatzeak bezeroekiko bizikidetzaren galarazten du).

5.3. Ehunen garbiketa

Betekizun hauek bete behar dira:

- Ehun "zikinak" (adibidez, erabilitako bainu-txabusinak eta eskuoihalak) bildu behar dira, poltsa batean sartu, eta poltsa itxi garbitegian tratatu arte.
- Zikin dauden ehunak ez dira astindu behar.
- Zeregin horiek modu seguruan egiteko, NBE egokiak, eskularruak eta maskarak erabili behar dira.
- Ehun "zikinak" manipulatu ostean, langileek eskuak garbitu behar dituzte.
- Ehun "zikinak" 60 °C-tik gorako tenperaturan garbitu behar dira. Garbitegi-zerbitzua kanpoan ematen bada, zerbitzuaren hornitzaileari eskatzen den gutxieneko tenperatura jakinarazi behar zaio. Tenperatura horretan garbitu ezin badira, desinfekzioa bermatzen duen beste sistema bat ezarriko da.

6. MANTENTZE-BETEKIZUNAK

6.1 Prebentziozko mantentzerako plana

Bainuetxeak garbiketa- eta desinfekzio-plana egokitu behar du identifikatutako arriskuen ebaluazioa aintzat hartuta. Zehazki, COVID-19a ez kutsatzeko eta hedatzeko xedez prebentzio-neurri gisa jarritako ekipamenduen funtzionaltasuna egiaztatu behar da (hala nola hauena: xaboi- eta paper-banagailuak, manparak edo antzeko hesi fisikoak, arrisku-iturritzat jo diren ekipamenduen itxitura edo zigilua, etab.).

Airea berritzeko sistemen funtzionamendua maizago kontrolatu behar da, kasu guztietan osasungintzako agintaritzen gomendioak betez.

Egindako mantentze-lanak erregistratu behar dira.

Lan horiek egiten dituzten pertsonen norbera babesteko ekipamendu egokiak eduki behar dituzte, laneko arriskuen ebaluazioaren arabera.


BIBLIOGRAFIA

- [1] UNE-ISO 21426:2019. Turismo y servicios relacionados. Balnearios. Requisitos para la prestación del servicio.
- [2] UNE-ISO 31000:2018. Gestión del riesgo. Directrices.
- [3] Espainiako Turismo Kalitaterako Institutua (ICTE), 2020. Medidas para la reducción del contagio por el coronavirus SARS-CoV-2 en hoteles y apartamentos turísticos.
- [4] Espainiako Turismo Kalitaterako Institutua (ICTE), 2020. Medidas para la reducción del contagio por el coronavirus SARS-CoV-2 en servicios de restauración.
- [5] Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa (2020). Guía de buenas prácticas para los establecimientos del sector comercial.
- [7] Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa (2020). Procedimiento de actuación para los servicios de prevención de riesgos laborales frente a la exposición al COVID-19.

I. ERANSKINA:

OME-K ESKUAK GARBITZEKO EMAN DITUEN GOMENDIOAK

Nola garbitu eskuak?

 Prozedura osoaren iraupena: 40-60 segundo.



0 Busti eskuak urarekin.



1 Jarri esku-ahurrean eskuen azalera osoa estaltzeko adina xaboi.



2 Igurtzi esku-ahurrak elkarrekin.



3 Igurtzi eskuineko esku-ahurra ezkerreko eskugainarekin, atzamarrek korapilatuz, eta alderantziz.



4 Igurtzi esku-ahurrak elkarrekin, atzamarrek korapilatuta dituzula.



5 Igurtzi esku bateko atzamarren gainaldea beste esku-ahurrearekin, atzamarrei helduta.



6 Igurtzi ezkerreko atzamar lodia eskuineko esku-ahurraren barruan, errotazio-mugimendua eginez, eta alderantziz.



7 Igurtzi eskuineko eskuko atzamarren punta ezkerreko esku-ahurraren kontra, errotazio-mugimendua eginez, eta alderantziz.



8 Eskuak uretatik pasatu.



9 Lehortu behin erabiltzeko toalla batekin.



10 Erabili toalla hori iturria ixteko.



11 Zure eskuak seguruak dira.



Osasunaren
Mundu Erakunde

Pazientearen segurtasuna
UNA ALIANZA MUNDIAL PARA UNA ATENCION MAS SEGURA

SAVE LIVES
Clean Your Hands



II. ERANSKINA: NBE-AK BEHAR BEZALA NOLA ERABILI.

MASKARAK

Industria eta Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiaren apirilaren 23ko Ebazpenaren arabera, zeina COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan norbera babesteko ekipamenduak (NBE) erabiltzeari buruzkoa den, ekipamendu batek, jakinarazitako erakundearen EB ziurtagiria ez badauka (fabrikatzailearen adostasun-adierazpenarekin eta produktuari/ontziari CE markaketarako eskatzen zaion gainerako informazioarekin batera), merkatua zaintzeko agintaritzaren aldi baterako baimena beharko du salbuespenez hornitu/merkaturatu ahal izan dezaten (Ebazpenaren 1.2. zenbakia).

Oro har, behin erabiltzeko NBEak erabiltzea da gomendioa, edo, hala izan ezean, fabrikatzailearen gomendioei jarraikiz erabili ondoren desinfekta daitezkeenak erabiltzea.

NBEak hautatzean, erabiltzaileak ahalik eta gutxien gogaitzea eta gehieneko babesa ematea bermatu behar da, eta, horretarako, oso garrantzitsua da erabiltzaileari behar bezala egokituko zaizkion neurria, diseinua edo tamaina aukeratzea.

Agente biologikoari atek itxi nahi bazaizkio, ezinbestekoa da NBEak behar bezala jartzea, baina ondo jartzea bezain garrantzitsua da behar bezala kentzea, eremu kutsatuak ukitzea edota agente infekziosoa hedatzea saihesteko.

NBEak modu seguruan bota behar dira, hondakinen edukiontzian (eta ez birziklatzekoetan) deuseztatuko diren poltsa itxietan.

Maskarak

COVID-19aren epidemiaren testuinguruan, lan-inguruneetan maskara higienikoak erabiltzea gomendatzen da (ez berrerabilgarriak izan daitezke, UNE 0064-1 arauaren arabera fabrikatuak eta 4 orduko erabilera mugatua dutenak, edo berrerabilgarriak izan daitezke, UNE 0065 arauaren arabera fabrikatuak eta 4 orduz erabili ondoren 60°C-tan garbitu behar direnak). Halaber, maskara kirurgikoak erabili ahalko dira (UNE-EN 14683:2019), nahiz eta hobe den horiek kutsatuta dauden edo COVID-19arekin bateragarria den sintomatologia daukaten langileentzat gordetzea.

Nolanahi ere, oro har, SARS-CoV-2 birusak kutsatu ahal izan dituen pertsonak edo gainazalak daudelako zantzurik ez dagoen inguruneetan, ez da zertan maskararik erabili, baldin eta segurtasun-distantzia gorde ahal bada.

Kutsatutako jendea dagoen eremuetara sartuz gero, arnas-babeserako maskarak erabili behar dira (FFPII edo FFPIII motakoak); hala ere, haiengana bi metrora baino gutxiagora hurbildu ezean, ez da beharrezkoa izango. Bestetik, maskara dualak erabili ahalko dira, zeinek NBE-en lege-xedapenak nahiz produktu sanitarioen xedapenak bete beharko dituzten.

Maskarak erabili eta kendu bitartean, inolaz ere ez da haien kanpoaldea ukituko. Era berean, maskara ez da kopetan edo lepoan jarriko, eta, erabileren artean, ez da poltsikoan gordeko.

Oharra: maskara kirurgikoak eta maskara higienikoak ez dira NBEtzat jotzen.

Maskara higienikoak biztanleria orokorrarentzat

Pertsona gehienek sintomekin hartzen dute COVID-19a beste pertsona batzuegandik. Hala ere, gero eta zantzu gehiagok pentsarazten dute sintomarik ez daukaten edo sintoma arinak daukaten pertsonen birusa transmiti dezaketela. Horregatik, biztanleria orokorrak zenbait inguruabarretan maskara higienikoak erabiltzea lagungarria izan liteke birusaren transmisioa txikiagotzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da maskarak ondo erabiltzea, prebentzio-neurriak kontuan hartuta, eta komunitateko transmisioa murrizteko neurriak betetzea:



Sintomak
badauzkazu, geratu etxean eta bakartu zaitez zure logelan.



1-2 m
Gorde 1-2 metroko distantzia pertsonen artean.



Garbitu eskuak
maiz eta arreta handiz.



Ez ukitu
begiak, sudurra eta ahoa.



Estali ahoa eta sudurra
ukondo tolestuaz ezul edo doministiku egitean.



Erabili botatzeko zapiak.



Egin lan urrutitik
ahal duzun guztietan.

Maskara higienikoak produktu ez-sanitarioak dira, ahoa, sudurra eta kokotsa estaltzen dituztenak eta buuruan edo belarrietan lotzen direnak.
Maskara higienikoak fabrikatzeko UNE zehaztapen teknikoak argitaratu dira:

- Berrerabilgarriak ([helduentzat](#) eta [haurrentzat](#))
- Erabilera bakarrekoak ([helduentzat](#) eta [haurrentzat](#))

NORI gomendatzen zaio erabiltzea?
Biztanle osasuntsu guztiei.



NON gomendatzen da erabiltzea?

- Lanean, erosketetan, gune itxietan edo kalean segurtasun-distantzia gorde ezin denean.
- Garraio publikoa erabiltzen denean.

Erabili ondo arrisku handiagorik ez sortzeko:

-  Garbitu eskuak jantzi baino lehen.
-  Denbora guztian, maskarak ahoa, sudurra eta kokotsa estali behar ditu. Garrantzitsua da zure aurpegira egokitzea.
-  Ez ukitu maskara jantzita daukazu bitartean.
-  Erosotasun- eta higiene-kontuak direla-eta, gomendatzen da maskara 4 orduz baino gehiagoz ez erabiltzea. Hezeten bada edo erabileragatik narriatzen bada, ordeztea gomendatzen da. Ez berrerabili maskarak berrerabilgarriak direla adierazten ez bada.
-  Maskara erantzeko, hartu atzeko aldetik, aurrealdea ukitu gabe, bota pertz itxi batean eta garbitu eskuak.
-  Maskara berrerabilgarriak fabrikatzailearen jarraibideekin bat etorritz garbitu behar dira.

2020ko apirilaren 21ean
Kontsultatu iturri ofizialak informazioa lortzeko.
www.mscbs.gob.es
@sanidadgob

**BIRUS
REAL
ELKARRREKIN
GELDIARAZIKO
DUGU**



GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Maskara higienikoak biztanleria orokorrean (Osasun Ministerioa, 2020)

III. ERANSKINA:

NBE-AK BEHAR BEZALA NOLA ERABILI: ESKULARRUAK

Babes-eskularruek EN- ISO 374.5:2016 araua bete behar dute. Binilozkoak edo nitrilozkoak izatea gomendatzen da, baina material gogorragoak erabil daitezke, egingo den jarduerak hala eskatzen badu. Eskularruek CE markaketa eduki behar dute.

Eskularruek babes-sentipen faltsua sor dezakete; beraz, oso garrantzitsua da eskularruak erabili aurretik eta ondoren eskuak ondo garbitzea (batez ere, kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitu badira).

Eskularruak erabileraren arabera adierazitako maiztasunaz aldatu behar dira, fabrikatzailearen jarraibideei jarraikiz. Edonola ere, erabilera luzatu nahi bada, produktu garbigarri bat aplikatu daiteke haien gainean, baina, hondamen-zeinurik agertuz gero (zuloa, urradura eta abar), aldatu egin beharko dira.

Honako hau da eskularruak eskuak kutsatu gabe kentzeko modu egokia:



Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuetarako prozedura

(Osasun Ministerioa, 2020)

Ikas ezazu behin erabiltzeko eskularruak arriskurik gabe kentzen

(Erizaintzako Elkargoa, 2020)

IV. ERANSKINA:

LANGILE INFEKTATUEKIN EDO ARRISKUDUN LANGILEEKIN NOLA JOKATU

COVID-19aren inguruko oinarrizko ezagutzak, prebentziorako aintzat hartu beharrekoak:

- Honako hauek dira COVID-19aren sintomak: eztula, sukarra eta arnasteko zailtasuna, baina, batzuetan, baita giharretako eta buruko mina ere.
- Kasuen % 80k sintoma arinak daukate, eta inkubazio-aldia 2-14 egunekoa da. Kasuen % 50 kutsapen-egunetik 5 egunera hasten dira sintomak izaten.
- Langile bat gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak edukitzen hasten bada, berehala jarriko da harremanetan autonomia-erkidegoak horretarako jarri duen telefono-zenbakiarekin edo dagokion osasun-zentroarekin, eta enpresari jakinaraziko dio. Sintomatologia lanpostuan hasten bada, berehalako arduradunari esango dio. Bestalde, establezimenduak prebentzio-zerbitzuari jakinaraziko dio, halakorik baldin badago, neurri egokiak har ditzan eta Osasun Ministerioak ezarritako jakinarazpen-betekizunak bete ditzan.
- Enpresak, berriz, infektatuta egon daitezkeen pertsonak edo infektatuekin kontaktuan egon diren pertsonak detektatuz gero jarduteko protokolo bat egin eta aplikatu behar du, «Sars-CoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura» deiturikoari jarraituz.
- Langile batek, Osasun Ministerioaren gomendioen arabera, izan haurdun dagoelako, patologia kronikoak dauzkalako edo adinekoa delako, «arriskudun pertsonaren» profila baldin badu, prebentzio-zerbitzuak bere lanpostua berrikusiko du, bere lana telelan bidez egin ezin denean «prebentzioz bakartzea» gomendatu behar ote den balioesteko, lehen adierazitako prozedurari helduz.

V. ERANSKINA: SEGURTASUN-DISTANTZIA

«SARSCoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura» izenekoak (Osasun Ministerioa, 2020) 2 metroko segurtasun-distantzia ezartzen du.

VI. ERANSKINA: GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-

PRODUKTUAK: BIRUZIDEN ZERRENDA

Esteka honetan kontsultatu dezakezu baimendutako produktu biruziden zerrenda osoa:

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf

